# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak
# ASTEKO LABURPENA

2022ko martxoaren 14tik 18rako astea

## INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

## ASTE HONETAN MERKATUETAN

## GURE IKUSPEGIA

# INGURU MAKROA

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## UROGUNEA: KPI




### Datuaren analisia

roguneko urte arteko inflazio-tasa % 5,9an kokatu zen otsailean, urtarrileko igoera baino zortzi hamarren ·ago. Serie historiko osoan Euroguneak izan duen prezioen garestitzerik handiena izan da, atariko datua narren bat gorantz berrikusi zuen Eurostaten azken irakurketaren arabera. Izan ere, atariko datu horrek zuen kontuan izan otsailaren 24an hasi zen Ukrainako inbasioaren eragina.

ezioek 2022ko bigarren hilabetean izan zuten gorakadak elikagai freskoen kostuaren urte arteko % 6,2ko erari erantzuten dio, aurreko hileko % 5,2aren aldean, baita energiaren prezioaren % 32ko igoerari ere, arrileko % 28,8aren aldean. Halaber, zerbitzuak urte arteko % 2,5 garestitu ziren, urtarrilean baino bi narren gehiago, eta ondasun industrial ez-energetikoen prezioak, % 3,1, aurreko hileko % 2,1eko eraren aldean.

oiko inflazio-tasa % 2,7ko maximo historikoan kokatu zen, urtarrileko % 2,3tik.

### Adierazlearen azalpena

'la hilero prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten ıarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" enarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat nditu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## UROGUNEA: ZEW




### Datuaren analisia

w indizearen arabera, Alemaniako inbertsiogileen konfiantzak 1991ko abenduko serie historiko osoko ıerakadarik handiena izan du martxoan, Alemania atzeraldian sartuko dela aurreikusten baita, Ukrainako rak eta Errusiaren aurkako zigorrek eragindako ondorioengatik.

ıazki, martxoko aurreikuspenen indizeak 93,6 puntu egin du behera aurreko hilabetetik, eta -39,3 puntutan ‹atu da, irakurketarik kaskarrena 2019ko udatik. Aitzitik, ZEW indizeak 58,2 puntu egin zuen behera Covid-aren pandemiaren hasieran, 2020ko martxoan. Halaber, Alemaniako egoera ekonomikoaren ebaluazioak okerrera egin du egungo inkestan, adierazlea 13,3 puntu jaitsi baitzen hilabetean, -21,4 puntura, moteltze ›nomikoa martxoan nabarituko dela iradokiz.

ierazlearen arabera, adituek *estagflazio* bat espero dute datozen hilabeteetan, eta aurreikuspenen ›rragotzeak Alemaniako ekonomiaren ia sektore guztiei eragiten diela ere adierazi dute, baina bereziki ›rgiaren sektore intentsiboei eta finantza-sektoreari.

roguneari begira, inbertsiogileen konfiantzak 87,3 puntu egin du behera martxoan, eta -38,7 puntutan ‹atu da; oraingo egoeraren adierazlea, berriz, -21,9 puntura jaitsi da, otsaileko 0,6 puntu osoen aldean.

### Adierazlearen azalpena

›maniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren ierazle bat da. Une jakin batean dagoen “sentimendu ekonomikoa” islatzeko balio du. Hilero argitaratzen ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. ›maniako ekonomiaren hurrengo sei hiletako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

# INGURU MAKROA

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## RRESUMA BATUA: BoE



## Datuaren analisia

azioa geldiarazteko, Ingalaterrako Bankuak % 0,5etik % 0,75era igo zituen interes-tasak, elkarren ɟidako hirugarren igoera lau hilabete eskasetan. Diruaren prezioaren igoera-boladarik handiena da 1997tik ɜiatzean, ekainean, uztailean eta abuztuan igo zituen tasak, % 7an kokatzeraino).

ɑkundearen helburua Erresuma Batuko bizitzaren kostuaren garestitzeari aurre egitea da; izan ere, rialdeko inflazioa % 5,5ekoa da gaur egun, % 2ko xedearen oso gainetik. Osteguneko mugimenduari ker, interes-tasak Covid-19aren pandemia Europara heldu aurretik zeuden maila berean utzi zituen alaterrako Bankuak, eta nolabaiteko normaltasuna itzuli zion diru-politikari.

stalde, banku zentralak txostenean onartu zuen, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra piztearekin batera, zkundea otsailean aurreikusitakoa baino ahulagoa izatea espero dela. Horregatik, nahiz eta analista ɿienak bat datozen maiatzean tasak % 1eraino eramango dituen beste igoera bat egongo dela esatean, keena da hor organismoak etenaldi bat hartzea.

## Adierazlearen azalpena

ɟalaterrako Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika zehazteaz duratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko Gobernuaren Banku Zentrala da, ı, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere zirkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

# INGURU MAKROA

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## .EB: FED

### FED-EN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK:

| Adierazlea | Urtea | Abenduko aurreikuspena | Azken aurreikuspena | Aldea |
|---|---|---|---|---|
| BPGd | 2022 | % 4,00 | % 2,80 | -% 1,20 |
| BPGd | 2023 | % 2,20 | % 2,20 | % 0,00 |
| BPGd | 2024 | % 2,00 | % 2,00 | % 0,00 |
| | | | | |
| KPI | 2022 | % 2,60 | % 4,30 | % 1,70 |
| KPI | 2023 | % 2,30 | % 2,70 | % 0,40 |
| KPI | 2024 | % 2,10 | % 2,30 | % 0,20 |
| | | | | |
| LANGABEZIA | 2022 | % 3,50 | % 3,50 | % 0,00 |
| LANGABEZIA | 2023 | % 3,50 | % 3,50 | % 0,00 |
| LANGABEZIA | 2024 | % 3,50 | % 3,50 | % 0,00 |

## Datuaren analisia

Dek 2018az geroztiko lehen interes-tasen igoera iragarri zuen bere hileroko bileran, duela lau narkadako inflaziorik handiena geldiarazteko helburuarekin. Hazkundeari kalterik ez egiteko, FEDek ıurtziaz jokatu zuen, eta erreferentzia-tasa 25 op igo zuen, % 0,25-% 0,50eko tartera. FEDen kide ıienen asmoa, hala ere, erreferentzia hori aurten % 1,75eraino eramatea da. Bileraren ondorengo ntsaurrekoan, Powellek esan zuen bere plana prezioen egonkortasuna lortzea dela, eta, aldi berean, lan-rkatu sendo bat mantentzea. Hazkundea sendoa dela ere adierazi zuen, bai eta ekonomia diru-politika rriztaileago bat jasateko aski indartsua dela ere. Bestalde, interes-tasen igoerekin batera, FOMCek erazi zuen, bestelako zehaztasunik gabe, bere balantzearen aktiboak murrizten hasteko ideiari helduko la hurrengo bileran.

era horretan, halaber, BPGd-aren, inflazioaren eta langabeziaren hazkunde aurreikuspenak berrikusi ıen. Ukrainako gerraren ondorioz, behera berrikusi zituen aurtengo BPGd-aren aurreikuspenak. ıgabeziaren inguruko kalkuluak, ordea, bere horretan utzi zituen. Powellek uste du inflazioa altu ntenduko dela urtearen erdialdera arte, 2022aren amaieran murriztera egingo duela eta datorren urtean -batean egingo duela behera.

## Adierazlearen azalpena

deral Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako abakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea a gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak kaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna flazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen lburuak.

# INGURU MAKROA

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## EB: INDUSTRIA-EKOIZPENA




### Datuaren analisia

sailean, industria-ekoizpenak % 0,5 egin zuen gora aurreko hilarekin alderatuta. Aurreko hileko igoera teldu egin zen urtarrilaren aldean, orduan % 1,4 hazi baitzen.

ktoreka, manufakturena eta meatzaritzarena, petrolio-zulaketa barne hartzen duena, % 1,2 eta % 0,1 hazi en joan den hilabetean, hurrenez hurren; gasarena eta elektrizitatearena, berriz, % 2,7 jaitsi zen, Ukrainako asioaren lehenengo egunetan. FEDen txostenak arroparen produkzioaren (% 3,2) eta defentsa-pamenduen (% 2,7) hazkundea nabarmendu zuen.

stetik, AEBetako industria-ahalmenaren erabilera-tasa % 77,6ra igo zen, urtarrileko % 77,3ko datua baino ı hamarren gorago.

### Adierazlearen azalpena

dustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo ten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz iten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen n jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## APONIA: BOJ / KPI




### Datuaren analisia

azioa ahul eta helburutik urrun dagoela ikusita eta perspektiba ekonomikoen inguruko ziurgabetasuna ıtuan hartuta, Japoniako Bankuak bere diru-politikari eustea erabaki zuen. Epe laburreko tasa -% 0,1ean ntenduko du, eta Japoniako estatu-bonuak erosten jarraituko du, 10 urterako bonu horien etekina % 0 urukoa izan dadin, ETE-ei eta etxeei maileguak ematea errazagoa izan dadin. Erakundeak aktiboak ısten jarraituko du, hala nola burtsan kotizatzen duten funtsak, urtean gehienez 12 bilioi yeneraino, 91.200 ioi euro inguru. Japoniako Bankuak immobilismoaren aldeko apustua egiteko aipatu zituen argudioen ɜan, etxeetako kontsumoa (Japonian pisurik handiena duen osagaietako bat) eta inflazioa kaltetu dituen vid19aren pandemia eta Ukrainako inbasio errusiarra egon ziren.

stalde, KPIa % 0,6 igo zen otsailean. Oso gorabeheratsuak diren elikagaien prezioak kanpoan uzten dituen izearen bilakaerak gora egin zuen seigarren hilabetez jarraian. Prezioak % 0,2 igo ziren urtarrilean.

### Adierazlearen azalpena

**poniako Banku Zentrala da BoJ**. Banku-sistema osoa kontrolatzen du, nahiz eta herrialde ɟustrializatuetako banku zentral gehienek baino autonomia txikiagoa izan. Hauek dira euren helburuetako tzuk: Horra bankuaren zenbait helburu: diru-papera jaulkitzea eta kudeatzea; diru-politika egitea; Altxor ıblikoko baloreekin eta Administrazioarekin loturiko jarduerak; datuak biltzea, azterketa ekonomikoak eta ɜrketa jarduerak. Japoniako Bankuak ekonomia nazionalaren garapenean lagundu nahi du bere diru-litikarekin, prezioen egonkortasuna bermatuz.

ᴾIa hilero prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen ɜilaren bilakaera erakusten du, “erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena.

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

| Data | Eremua | Adierazlea | Aurreik. |
|---|---|---|---|
| 03/21 | Estatu Batuak | Chicagoko Fed-en indize nazionala | -- |
| 03/22 | Estatu Batuak | Richmond manufakturen indizea | 2 |
| 03/23 | Erresuma Batua | Hileko KPIa | % 0.5 |
| 03/23 | Estatu Batuak | Hileko etxebizitza berrien salmenta | % 1.8 |
| 03/23 | Eurogunea | Kontsumitzailearen konfiantza | -12.8 |
| 03/24 | Japonia | Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa | -- |
| 03/24 | Japonia | Japoniako Jibun Bank Composite PMIa | -- |
| 03/24 | Japonia | Japoniako Jibun Bank fabrikazioaren PMIa | -- |
| 03/24 | Frantzia | Enpresen konfiantza | 112 |
| 03/24 | Frantzia | Markit Frantzia Zerbitzuak PMI | 55.0 |
| 03/24 | Frantzia | Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa | 55.0 |
| 03/24 | Frantzia | Markit PMI Composite Frantzia | 54.5 |
| 03/24 | Alemania | Alemaniako Markit/BME fabrikazioaren PMIa | 55.8 |
| 03/24 | Alemania | Markit Alemania Zerbitzuak PMI | 54.2 |
| 03/24 | Alemania | Markit/BME Alemania Composite PMI | 54.0 |
| 03/24 | Eurogunea | EBZren hileko buletina | 0 |
| 03/24 | Eurogunea | Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa | 56.0 |
| 03/24 | Eurogunea | Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI | 54.3 |
| 03/24 | Eurogunea | Markit PMI Composite Eurogunea | 53.7 |
| 03/24 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI | 58.0 |
| 03/24 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Composite PMI | 57.8 |
| 03/24 | Erresuma Batua | Markit, RU SAren PMI fabrikazioa | 57.0 |
| 03/24 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | -- |
| 03/24 | Estatu Batuak | Ondasun iraunkorren agindAk | -% 0.6 |
| 03/24 | Estatu Batuak | S&P Global US Manufacturing PMI | 55.0 |
| 03/24 | Estatu Batuak | S&P Global US Services PMI | 56.0 |
| 03/24 | Estatu Batuak | S&P Global US Composite PMI | -- |
| 03/24 | Estatu Batuak | Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn | -- |
| 03/25 | Japonia | YoY Tokioko KPI | % 1.2 |
| 03/25 | Erresuma Batua | Kontsumitzailearen konfiantza GfK | -30 |
| 03/25 | Erresuma Batua | MoM xehek. salmentak autoen erregaiak barne | % 0.8 |
| 03/25 | Espainia | Hiruhileko BPGd | % 2.0 |
| 03/25 | Alemania | IFO enpresen egoera | 94.0 |
| 03/25 | Alemania | IFOren gaur egungo ebaluazioa | 96.4 |
| 03/25 | Alemania | IFO aukerak | 92.6 |
| 03/25 | Italia | Sentimendu ekonomikoa | -- |
| 03/25 | Estatu Batuak | Egiteke dauden hileko etxebizitzen salmentak | % 1.0 |
| 03/25 | Estatu Batuak | Pertzepzioa Mich. U. | 59.7 |
| 03/25 | Estatu Batuak | Oraingo egoera Mich. U. | -- |
| 03/25 | Estatu Batuak | Aukerak Mich. U. | -- |

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

kutxabank gestión

## ERRENTA ALDAKORRA

an den astean, burtsek igoera sendoekin amaitu zuten mundu osoan, gatiboan itxi zuten Txinako indizeek izan ezik, nahiz eta azken egunetan te hasierako galera handien zati handi bat berreskuratzea lortu zuten. rainako gerra izan zen faktorerik erabakigarriena merkatuetan, baina inak inbertsiogileetan ere jarri zuen arreta. Halaber, FED, BoE eta poniako Bankuaren hileroko bilerak egin ziren. Fronte geopolitikoan, rusiak Ukrainaren aurkako erasoak areagotu zituen arren, Errusiako pek Ukrainako hiriburuari, Kievi, egindako erasoen erdian, bi herrialdeen eko negoziazio diplomatikoek ez zuten etenik izan. Zelenski esidenteak aitortu zuen Ukraina ez dela NATOko kide izango, eta gerrari aiera emateko 15 puntuko neutraltasun plan bat prestatzen ari dela ere in zen. Albiste horrek burtsak babestu zituen nabarmen, nahiz eta kinek gatazkan gehiago parte hartzeko aukeraren kezka piztu. Txinari ruzko kezka geopolitiko horiei alerta ekonomikoak gehitu zitzaien. enzhen hirian izandako Covid19aren agerraldi berri batek 17 milioi tanleko hiri hori (hainbat erraldoi teknologikoren egoitza) konfinatzera hartu zuen Txinako gobernua. Blokeo horrek herrialdeko ekonomiaren telaldi arriskua areagotu zuen, munduko hazkundearen eragilea, eta e jarri zituen merkatuak, lehendik Estatuaren interbentzionismo sendoak jortutako sektore teknologikoari nabarmen eragin ziona. Testuinguru rretan, Pekingo gobernuak urak baretzea lortu zuen, ekonomia ltzatzeko diru- eta zerga-arloko neurri gehiago hartuko zituela iragarri itzuen. Bestetik, Xi presidentea ondorio ekonomiko txikiagoa duen OVIDaren kontrako politika bat egiteko prest agertu zen. Banku Zentralei gokienez, FEDek % 0,25 igo zituen interes-tasak, eta igoera gehiago rreratu zituen urtearen gainerakoan. Aurreikuspen ekonomikoen juruan Powellek erakutsi zuen tonu positibo eta baikorrak «hawkish» gisa erpretatu zen mezuari kontrapisu egin zion. Ingalaterrako Bankuak, stalde, diruaren prezio ofizialaren elkarren segidako hirugarren igoera artu zuen, eta Japoniako Bankuak diru-politika malguari eutsi zion. Hiru akundeek aurreikusitako gidoia bete zuten, eta, beraz, ondorioak txikiak n ziren merkatuetan.

## ERRENTA FINKOA:

tean, bake akordio baten aukeraren aurrean, errenta aldakorrak tonu ona n zuen eta zor subiranoaren salmentetan nabaritu zen. Erreserba deralaren eta Ingalaterrako Banku Zentralaren tasen igoera bigarren anoan geratu zen, ez baitzuen ezustekorik ekarri. Bund-aren entagarritasunak +12 op egin zuen gora, % 0,37raino, eta Europako rrialde periferikoetan spread-ek behera egin zuten Alemaniarekin deratuta (Espainian, 95 op vs aurreko hileko 99). Kredituak bere erentzialak estutu zituen Europan. AEBetan, 10 urterako treasury bonuak 6 op egin zuen gora, % 2,15eraino.

## BISAK / LEHENGAIAK:

rainako gatazka arinduko delako itxaropenak euroari mesede egin zion, a balioa irabazi zuen dolarraren aurrean, baita liberaren aurrean ere nki, FEDen eta Ingalaterrako Bankuaren tasen igoerak gorabehera. hengaiei begira, petrolioaren prezioak, hegazkortasun handiarekin bada e, behera egitea lortu zuen, Ukrainaren inguruko baikortasun handiagoak uspotuta. Energiaren Nazioarteko Erakundeak Errusiako petrolioa erkatutik erretiratuko balitz hornigaietan gertatuko litzatekeen eskasiari ruzko ohartarazpenak eta Txinaren inguruko kezkak (petrolio gordinaren unduko inportatzailerik handiena) bigarren plano batean geratu ziren. riskuarekiko ezinikusi txikiagoak kalte egin zion urrearen prezioari (-% 36).

| INDIZEA | 2022/03/18 | Aldaketa astean | Ald 2022 |
|---|---|---|---|
| IBEX | 8.417,60 | % 3,38 | -% 3,40 |
| EUROSTOXX | 3.902,44 | % 5,85 | -% 9,21 |
| 50 ALEMANIA | 14.413,09 | % 5,76 | -% 9,27 |
| INGALATERR | 7.404,73 | % 3,48 | % 0,27 |
| A FRANTZIA | 6.620,24 | % 5,75 | -% 7,45 |
| ITALIA | 26.496,03 | % 5,16 | -% 11,51 |
| S&P 500 | 4.463,12 | % 6,16 | -% 6,36 |
| DOW | 34.754,93 | % 5,50 | -% 4,36 |
| JONES | 14.420,08 | % 8,41 | -% 11,64 |
| NASDAQ | 26.827,43 | % 6,62 | -% 6,82 |
| 100 | 3.251,07 | -% 1,77 | -% 10,68 |
| NIKKEI 225 | 3.010,59 | % 6,00 | -% 6,84 |
| SHANGHAI | 1.122,98 | % 3,44 | -% 8,85 |

| Gobernuen tasak | 2022/03/18 | Aldaketa Astean | Ald 2022 |
|---|---|---|---|
| 2 urte | | | |
| ALEMANIA | -0,34 | 7 | 28 |
| ESPAINIA | 0,00 | -1 | 61 |
| AEB | 1,94 | 19 | 120 |
| 5 urte | | | |
| ALEMANIA | 0,09 | 10 | 54 |
| ESPAINIA | 0,58 | 4 | 74 |
| 10 urte | | | |
| ALEMANIA | 0,37 | 12 | 55 |
| ESPAINIA | 1,32 | 8 | 75 |
| AEB | 2,15 | 16 | 64 |

| Kreditu-spreada (op) | 2022/03/18 | Aldaketa Astean | Ald 2022 |
|---|---|---|---|
| ITRX EUROPE (5A) | 70,41 | -10 | 23 |
| ITRX EUR XOVER (5A) | 339,49 | -47 | 98 |

| Dibisak | 2022/03/18 | Aldaketa Astean | Ald 2022 |
|---|---|---|---|
| $/€ | 1,1051 | % 1,27 | -% 2,81 |
| Yena/€ | 131,69 | % 2,87 | % 0,59 |
| gpb/€ | 0,84 | % 0,19 | -% 0,22 |

| Lehengaiak | 2022/03/18 | Aldaketa Astean | Ald 2022 |
|---|---|---|---|
| BRENT | 111,97 | -% 3,96 | % 44,55 |
| URREA | 1.921,62 | -% 3,36 | % 5,05 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.